

# Venezuela bolivartarra: hamarkada luze baten balantzea

Luis Miguel Uharte Pozas

**EHUko irakaslea. Ikasketa Latinoamerikarretan doktorea**

Venezuelan 1998tik aurrera indarrean den prozesu politikoaren balantzea eta analisi kritikoa egitea da artikulu honen helburu nagusia. Horretarako, orain arte aldaketa-prozesuak izan dituen hiru epealdiak identifikatu eta epealdi bakoitzaren barruan jazo diren gertakari nagusiak nabarmentzen dira. Prozesu konstituziogileak, estatu-kolpearen saiakerak eta petrolio-sabotajeak laburbiltzen dute lehenengo fasea (1998-2003). Bigarrenean (2003-2007), gizarte-politika berria («misiones») eta «chavismoa»ren hegemonia politikoa nagusitzen dira. Azken epealdian, 2007an ireki zena eta oraindik itxi ez dena, barne-kontraesanak eta aldaketa-prozesuaren gelditasuna nabarmentzen dira.

**GAKO-HITZAK:** Prozesu konstituziogilea · Gizarte-politika berria («misiones») · Boliburgesia.

## **Bolivarian Venezuela: the balance of a long decade**

The fundamental aim of this article is to produce a balance and a critical analysis of the political process taking place in Venezuela since the year 1998. To this end three stages have been identified through which the process of change has advanced up to the present and the fundamental aspects which have characterized each period are shown. The first stage (1998-2003) was characterized by the constituent phase, the attempted coup d'état and petroleum sabotage, while the second stage (2003-2007) is typified by the new social policy ('missions') and político-electoral hegemony. The last period, which began in 2007 and has not yet finished, is marked by internal contradictions and the stagnation of the change process.

**KEY WORDS:** Constituent process · New social policy ('missions') · Bolivarian bourgeoisie.

*Jasotze-data:* 2011-05-16. *Onartze-data:* 2012-01-09.

## Sarrera

Venezuelan, Hugo Chavezek 1998ko hauteskundeak irabazi zituenetik, aldaketa-prozesu bat abian jarri zen eta, hamarkada luze bat igaro ostean, prozesuak jarraitzen du, kontraesanak eta ahuleziak izan arren. «Iraultza bolivartarra» bataiatutako aldaketa-prozesuak 12 urte gainditu ditu eta lan honetan haren ibilbidearen analisisa eskaini nahi dugu. Lehenengo kapituluan, garaipenaren arrazoiak, lehenengo aldaketek eta elitearen altxamenduak hitz egingo dugu. Bigarrenean, gobernuak bultzatutako aldaketa nagusiak —gizarte-politikan batez ere— azpimarratuko ditugu. Hirugarrenean, azken urteotan sortutako kontraesanak eta ahuleziak aztertuko ditugu. Azkenik, ondorio laburrak aurkeztuko ditugu.

### 1. 1998-2003: hauteskunde-garaipena, konstituzio bolivartarra eta elitearen matxinada

1998ko abenduaren 6an eginiko hauteskundeak inflexio-puntua izan ziren Venezuelako historia garaikidean, bi arrazoi nagusirengatik. Alde batetik, alderdibitasuna —ADren eta COPEIren artekoa— hondatu baitzen, 40 urtean izandako hegemonia politikoa galduz (Viciano eta Martínez, 2001)<sup>1</sup>. Beste alde batetik, «alternatiba herrikoiak» irabazi baitzuen, Hugo Chavezek eta haren plataforma politikoak —Movimiento V República— irabazi zutenean (López Maya, 2005: 202).

Dena den, 1998an gertaturikoa ulertu ahal izateko, 1989ko hasieran jazotakoari erreparatu behar diogu. Urte *hartako* otsailaren 27an, «**Caracazo**» izeneko herri-matxinada gertatu zen Caracasen eta inguruko herri batzuetan, izendatu berria zen Carlos Andrés Pérez presidenteak ezarritako neurri neoliberalen aurka (Blanco, 2002: 23). Gobernuak errepresioaren bitartez erantzun zion herri-aldxamenduari eta milaka hildako eragin zituen egun gutxitan<sup>2</sup>. Geroztik, botere faktikoek eraikitako «adiskidetze-eredua» apurtzen hasi zen eta sistema osoaren mailakako deslegitimazioa gero eta nabariagoa izan zen (Viciano eta Martínez, 2001: 72).

Ellner-en arabera, bi faktorek ahalbidetu zuten Chavezen garaipena hauteskundeetan (Ellner, 2003: 19). Lehenik, neoliberalismoak utzitako ondorioek sekulako kalteak eragin zituzten gizartean: pobrezia eta ezberdintasunaren hazkundera, langabezia eta lan informalararen gorakada, gizarte-zerbitzuen degradazioa, giza eskubideen urraketa orokorra. Horrexegatik, herriaren gehiengo zabalak eredu-aldaketa nahi eta galdegiten zuen, Edgardo Lander-en aburuz (2004). Bigarrenik, Chavezek herritar askoren konfiantza biltzea lortu zuen, 1992ko matxinada militarren erantzukizuna bere gain hartu zuenetik. Lopez Mayak (2005: 204) gogora-

---

1. Pérez Jimenez jeneralaren diktadura bukatu ostean —1958an—, «Pacto de Punto Fijo» delakoaren ondorioz sistema liberal-ordezkaitezkoa inposatu zen Venezuelan 40 urtez. Acción Democrática (AD) eta COPEI, sozialdemokratak eta sozialkristauak hurrenez hurren, botere politikoa bereganatu zuten, bertako burgesia eta Estatu Batuen oniritziarekin. Garai horretaz sakondu nahi izanez gero, kontsultatu honako testuak: «Historia de la Revolución Bolivariana. Pequeña crónica. 1948-2004» (Bonilla-Molina eta El Troudi, 2004), «Venezuela, 1930-1990» (Ewell, 2002), «Historia de medio siglo en Venezuela» (Maza Zavala, 1979), «Breve historia contemporánea de Venezuela» (Morón, 1994), «Venezuela: del ajuste neoliberal a la promesa de socialismo del siglo XXI» (Uharte, 2008).

2. Armadako ofizial baten arabera, 2.000 hildako baino gehiago eta 10.000 zauritu suertatu ziren egun horietan. Gobernuak soilik 374 hildako onartu zituen (Sonntag, 1992: 307).

razten du «politikari tradizionalak sinesgarritasun osoa galdua zutela» momentu horretarako eta Chavezek, aitzitik, «zintzotasuna eta konfiantza» islatzen zituen.

Hugo Chavezek prozesu konstituziogilea *eraikitzea* zin egin zuen hauteskunde-kampaina izan baino lehen, eta presidentetza bereganatu bezain laster abian jarri zuen, 1999. urtearen hasieran. Inkesten arabera, «herritarren % 45 baino gehiago konstituzio berri baten alde agertzen zen» eta hartutako erabakiak indartu zuen presidentearen irudia (Viciano eta Martínez, 2001: 101). Aipatu urte horretan zehar, herritarrek batzar konstituziogilea aukeratu zuten, zeinak **konstituzio berria** erredaktatu zuen, eta azkenik gizartearen gehiengoak (% 71k) baietza eman zion. Muller-en ustez (2001: 81), prozesu konstituziogileak «milaka pertsonaren aktibazioa eta parte-hartzea bultzatu zuen» eta ondorioz Exekutiboaren sinesgarritasuna sendotu zen.

Konstituzio berria, konstituzio bolivartarra hain zuzen ere, aldaketa-prozesuak emandako fruiturik aurreratua izan zen 1999an, zenbait hobekuntza juridiko-politiko biltzen zuelako, ikertzaile batzuen arabera (Viciano y Martínez, 2001; Lander, 2004; Muller, 2001). Alde batetik, demokrazia parte-hartzailearen filosofia bultzatzeko asmoz, tresna juridiko eta instituzio berriak sortu ziren, besteak beste, herri-kontsulta, erreferendum ezeztatzailea, ekimen legegilea eta herritarren batzarra (Lander, 2004). Beste alde batetik, neoliberalismoa gainditzeko logika publikoa aintzakotzat hartzen zuen, artikulatu askotan. Petrolioaren jabego publikoa indartzea adibiderik esanguratsua izan zen (Muller, 2001: 83). Gainera, giza eta gizarte-eskubideen arloan aurrerapauso nabariak eman zituen (osasungintzan, hezkuntzan, indigenen alde eta abar), Blancok (2002: 55) onartzen duen bezala. Alde kritikoa estatu-botere banaketan antzematen zen, Exekutiboari eskumen gehiegi aitortzen baitziren, Vicianok eta Martínezek (2001: 239) baieztatzen dutenez.

Beraz, 1999 lorpen politikoen urtea izan zen, beste esparru batzuetan iraunkortasuna nagusi izan baitzen. Arlo ekonomikoan, Chavezek aurreko Exekutiboko ministro bera mantendu zuen, eta, arlo sozialean, joera asistentzialista indarrean egon zen (Vivas, 2000).

Aipatutako joera aldatzen hasi zen 2001. urtean, «**Ley Habilitante**» delakoa onartu zenean; izan ere, «Habilitante»aren bitartez bultzatu ziren lege anitzek aldaketa sakonak ekarri zituzten arlo ekonomikora. Oraingo honetan, burgesiaren interesak ukitzen hasi ziren eta, ondorioz, klase horren altxamendua martxan jarri zen, Ellnerrek gogoratzen duenez (Ellner, 2003: 13-4). Lur eta Hidrokarburoen Legeak azpimarratzekoak dira, bultzaturiko lege berri guztien artean. Bonilla eta El Troudi-ren arabera (2004: 194), lege berriek ez zuten gizartearen klase-egitura aldatzen, baina klase menderatzaileen interesak ukitu zituen<sup>3</sup>. Hori dela-eta, gobernuaren aurkako lehenengo enpresarien greba konbokatuta zen 2001eko abenduan.

---

3. Hidrokarburoen Legeak baliabide estrategiko honen jabego publikoa indartzen zuen, negozio zabala mugatuz kanpoko eta bertako sektore pribatuari. Lur Legea, aldiz, nekazaritza-erlaketara baino haratago zihoan, elikadura-subiranotasuna bultzatzen zuelako eta horrek janari-inportatzaileei eragiten zien zuzen-zuzenean (Bonilla eta el Troudi, 2004: 194).

Hortik aurrera, prozesu bolivartarraren epe gatazkatsuen abian jarri zen, eliteak mota guztietako tresnak —bortitzak barne— erabili zituelako prozesua bertan behera uzteko (Ellner, 2004: 12). 2002ko apirileko estatu-kolpearen saiakera adibiderik adierazgarriena izan zen, hartutako neurri ekonomikoen eraginkortasuna egiaztatzeko. Bertako botere faktiko guztiek —enpresariak, aurreko elite politikoa, elizaren zuzendaritza, komunikabide pribatuak eta Armadako goi-kargu solte batzuk— AEBren enbaxadaren laguntzaz, kolpe militarra abiarazi zuten gobernua- ren proiektu politikoa deuseztatzeko, baina huts egin zuten (Bjorklund, 2002: 76).

Roberts-en arabera (in Ellner *et al.*, 2003: 94), kolpearen porrotaren arrazoi nagusiak honakoak izan ziren: batetik, «auzo txiroetako milaka biztanleren mobilizazioa», kalera atera baitziren «beren gobernua defendatzera»; bestetik, «militar askoren jarrera aktiboa» kolpeari buelta emateko. Marta Harnecker-en aburuz (2003: 62), «kontrairaultza martxan jarri zen *iraultzarik* ez zegoenean». Hala ere, «kontrairaultzaren aktibazioak aldaketa-prozesua erradikalizatzen lagundu zuen».

Eliteak estatu-kolpean porrot egin bezain laster, estrategia bortitzari eutsi zion, baina oraingo honetan arlo ekonomikoan zentratuz. 2002ko abenduaren hasieratik eta bi hilabetez, enpresarien greba mugagabeari ekin zion eta, horrekin batera, petrolio-ekoizpena geldiarazten saiatu zen, «krisi ekonomiko larria eragiteko eta gobernua makurrarazteko asmoz», Ellnerrek (2003: 17) gogoratzen duen bezala. Autore berak gaineratzen du burgesiaren altxamenduak porrot egin zuela, «langile anitzek grebarekin bat egin ez baitzuten» eta «militar eta petrolio-teknikari batzuek» PDVSA (Petróleos de Venezuela) enpresa publikoa berriro martxan jarri baitzuten, «sabotajea gaudituz». (Ellner, 2003: 18).

## 2. 2003-2007: gizarte-politika berria eta hegemonia

Esan bezala, «elitearen altxamenduak» aldaketa-prozesua sakontzen lagundu zuen. Hori ageriko bihurtu zen 2003. urtetik aurrera, gizarte-politika berria abian jarri zenean (Harnecker, 2007: 187). Zenbait gizarte-programak —«**misiones**» izenekoek— iraultzaren etapa berriaren hasiera islatu zuten. «Misión Barrio Adentro» osasungintzan —lehen mailako arretan espresuki—, «Misión Robinson» hezkuntzan —helduen alfabetizazioan— eta «Misión Mercal» elikaduraren arloan, gizarte-politikaren eredu berriaren ikur nagusi bihurtzen saiatu zen gobernua. Programa horiek «jauzi kualitatiboa erakutsi zuten gizarte-politikari dagokionez», estaldura unibertsala, dohaintasuna, gizarte-eskubidearen kontzeptuaren berreskurapena eta herritarren parte-hartzea bultzatu nahi baitzuten, zenbait adituk aitortzen duten bezala (Yañez, 2007; Parker, 2007; Casanova, 2007)<sup>4</sup>.

Uharteren ustetan (2008: 258) «misio» horiek lorpen nabariak ekarri zituzten, bi zentzutan. Alde batetik, «lorpen sektorialak» erakutsi zituzten: 1.500.000 lagun en alfabetizazioa —hezkuntzan—, lehen mailako arreta medikoa eskainiz 14 milioi pertsonari —osasungintzan— eta oinarriko produktuak hornituz supermerkatu

---

4. Gobernu bolivartarrak abian jarri zuen gizarte-politika berriaren inguruan sakondu nahi izanez gero, gomendagarria da honako testua: «Política social en Venezuela: ¿un nuevo paradigma?» (Uharte, 2008).

estataletan —elikaduran—. Beste alde batetik, «lorpen politikoak» ere esanguratsuak izan ziren: gizartearen aktibazioa, herritarren parte-hartzea —auzo pobreetan batez ere—, kontzientzia politikoaren sendotzea eta, horren guztiaren ondorioz, «gobernuarekiko atxikimenduaren handitzea eta berrindartzea». Handik aurrera eta 2007ra arte, gobernuaren hegemonia nabaria izango zen eta hauteskunde guztietan islatuko zen.

Elitearen azken saiakera Chavez eraisteko, 2004ko abuztuaren 15eko erreferendum ezeztatzailea izan zen. Hala ere, Chavezek garaipen zabala lortu zuen, botoen % 60 eskuratu zuelako. Garai horretan egin ziren hauteskunde guztietan, chavismoaren eta eskuinaren artean % 20ko aldea errepikatu zen behin eta berriro. Halaber, urte *horrek* «oposizioaren atzerakada, porrota, fragmentazioa eta norabide falta» markatu zituen, Bonilla eta El Troudiren ustez (2004: 253).

*Chavismo* eta gobernuaren proiektu politikoaren jauzi kualitatiboa, ideologiari dagokionez, 2005ean gertatu zen. Urte hartan, Porto Alegreko Munduko Gizarte Foroan, Chavezek kapitalismoaren aurka eta sozialismoaren alde egindako diskurtsoak aipatutako «jauzi kualitatiboa» erakusten du, Lebowitz-en arabera (2006). Iraultza bolivartarra, «antineoliberal eta antiimperialista izatetik antikapitalista eta sozialista izatera pasatu zen» diskurtsoari dagokionez. Geroztik, Exekutiboaren eta mugimendu bolivartarraren «helburu estrategikotzat hartu zen **sozialismoa**» eta, ondorioz, ildo horrek erakutsi behar zituen hartu beharreko neurri ekonomiko, politiko, sozial eta kultural guztiak (Lebowitz, 2006)<sup>5</sup>. Garai horretan eginiko legegintzarako hauteskundeek chavismoaren hegemonia sendoa eta oposizioaren ahulezia islatu zituzten, Harneckerren aburuz (2007: 190).

Dena den, gobernuaren urterik onena eta oparoena 2006a izan zen, abenduko hauteskunde presidentzialetan garaipen argiena eta zabalena lortu baitzuen. % 20ko ohiko aldea gaingitu zuen, % 25eko aldea eskuratuz eta 7 milioi boto baino gehiago bilduz. Dieterich-en ustez (2007), garaipena izan zen gizarte-politika berriaren eta «misio» direlakoan «fruitu zehatza eta zuzena». Herritarren gehiengo zabala sostengua ematen ari zitzaion Chavezen gobernuari. Testuinguru horretan, Chavezek tresna politiko berriaren sorkuntza, PSUV (Partido Socialista Unido de Venezuela) hain zuzen ere, bultzatu zuen, eta hilabete gutxitan 6 milioi pertsonak baino gehiagok izena eman zuen alderdi berrian. PUSVren militantzia kopuru altuaren «arrakasta» loturik zegoen «presidenteak zuen sostenguearekin» baina aldi berean «klientelismo berria sortzeko arriskuarekin», Casanovaren ustez (2007)

### 3. 2007tik aurrera: krisia eta hegemonia kolokan

Hala ere, hegemonia politikoa ongi bideratu beharrean, Parker-en aburuz (2007), «triumfalismoa eta harropuzkeria» nagusi bihurtu ziren, urtebete pasatu ondoren. 2006an gailurra egin ondoren, 2007an atzera egiten hasi zen. Hainbat aldagaik azaltzen dute aipatu atzerakada. Batetik, gobernuaren indarraren eta arrakastaren ikurra ziren gizarte-programak —«misioak»— huts egiten hasten dira.

---

5. Chavezek aldarrikatzen duen sozialismoa, «Socialismo del Siglo XXI» bataiatu du, XX. mendeko sozialismotik ezberdintzeko: «Tenemos que reinventar el socialismo (...) No puede ser el tipo de socialismo que vimos en la Unión Soviética» (Chávez, in Lebowitz, 2006).

«Barrio Adentro» eta «Mercal» ugari, esate baterako, gero eta zerbitzu okerragoa ematen hasi ziren arrazoi ezberdinengatik, batez ere, «funtzionarioen utzikeria edota ustelkeriarengatik».

Bestetik, Casanovak (2007) aipatzen duenez, Estatu bolivartarraren pean jaiotako «klase aberats berria», «**boliburgesia**<sup>6</sup>» alegia, gero eta ikusgarriago agertzen da. Auzo pobreetan gizarte-programak eta zerbitzu publiko batzuk huts egiten hasten ziren bitartean, «burgesia bolivartar berriak» bere aberastasuna «erakusten zuen publikoki». Casanovaren ustetan (2007), «boliburgesia»k erabiltzen zuen «diskurtso sozialista eta iraultzailea»k talka egiten zuen bere praktikarekin, eta gobernuak lorturiko «legitimazioa kaltetua suertatu zen».

Aipatutako bi aldagai horiei gehitu behar zaie oposizioaren birbateratzea eta berreraketa. Eskuinak, estrategia aldatu behar zuela ikasi zuen, eta oraingo honetan «inflazioa ezegonkortzeari ekin zion» eraginkortasun handiz. Gobernuaren aurkako botere ekonomiko pribatu anitz ados jarri ziren ekonomia kaltetzeko, «elikagaien pilatze eta espekulazioaren bitartez». Horren ondorioz, prezioak nabarmen igotzen hasi ziren hilerro, sekulako inflazioa eraginez urte bakoitzaren bukaeran, eta «klase subalterno eta ertainaren erosteko ahalmena murriztuz» gero eta gehiago (Álvarez, 2011: 11)<sup>7</sup>.

Honengatik guztiagatik gobernuak zuen sostengu zabala gutxituz joan zen. Klase ertainaren sektore garrantzitsu bat urruntzen hasi zen, «inflazioaren eraginagatik baita ikusitako ustelkeriagatik ere». Chavismoak sostenguren zati bat galdu zuen bere sektore leialenen artean, pobreen artean zehazki, «misioen» eredu huts egiten hasteagatik (Casanova, 2007). Lehenengo hauteskunde-porrota, konstituzioa eraldatzeko erreferendumean hain zuzen ere, ondorio nabariena izan zen.

Azken hiru urteetan, Venezuelako aldaketa-prozesua «krisi batean murgilduta» dago zenbait ikertzailearen ustez (Lander, 2010: 4; Álvarez, 2010: 25), eta herritarren sostenguan islatu da, nabarmen jaitsi delako. Zenbait faktorek azaltzen dute gaur egungo egoera. Alde batetik, antzinako arazo batzuek beren horretan dira, esate baterako, **segurtasun faltak**. Nahiz eta aurreko gobernu neoliberalen oinordea izan, Exekutiboak 10 urte luze izan ditu aurre egiteko eta murrizteko, baina orain arte lortutakoa oso eskasa izan da. Egia esan, laurogeiko hamarkadako bortizkeria-tasak mantentzen dira (Chacón, 2011) oraindik, gobernu bolivartarraren hutsunea erakutsiz arlo horretan. Gizarteak egundoko garrantzia ematen dio herritarren segurtasunari eta Exekutiboari erantzukizuna leporatzen dio<sup>8</sup>.

Beste alde batetik, azken urteotan beste arazo batzuk sortu edo berpiztu dira. Aipatu inflazioa nabarmenetako bat da. Chavezen gobernuak estatistikak erabili

---

6. Norbera aberasteko Estatuaz baliatu diren zenbait funtzionarioik eta enpresarioik osatzen dute «boliburgesia».

7. Estrategia honek, hau da, inflazio altua eragitea espekulazioaren bitartez, burgesiak erabili ditu herrialde batzuetan, gobernu aurrerakoiei aurre egiteko. Txilekoa, Allenderen gobernuaren aurkakoa, ospetsuenetako bat da (Harnecker, 2007: 195).

8. Venezuelan, beste herrialde askotan gertatzen den bezala, pobreak dira gehien pairatzen dutenak bortizkeria eta segurtasun falta, hildako eta delitu gehienak auzo txiroetan gertatzen direlako, eta ezin dugu ahaztu chavismoaren oinarri sendoena klase apalenak direla.

ohi ditu, aurreko Exekutibo neoliberalen inflazioa altuagoa izan zela gogoratzeko, baina gero eta jende gehiagok «aitzakiatzat jotzen du» azalpen hori. Álvarez en aburuz (2011: 32), «burgesiaren eraso ekonomikoa —espekulazioaren bitartez— benetakoa izan arren, gobernua ezin du ekidin bere erantzukizuna» arazoari eraginkortasunez aurre egiteko.

Horri guztiari azken bi urteetan beste arazo bat gehitu behar zaio, oinarritzko zerbitzuen funtzionamendu kaxkarra, hain zuzen ere. Argindarraren eta ur-hornikuntzaren zerbitzua okertuz joan da ingurumen-arrazoak direla-eta, baita «gobernuaren aurreikuspen falta eta eraginkortasun falta direla-eta» (Lander, 2010: 6). Argindarraren eta uraren hornikuntzan egindako mozketek oposizioari argudio ezin hobe eskaini diote gobernuaren kudeatzeko gaitasuna zalantzan jartzeko (Acosta, 2011).

Aipatutakoaren ondorio zuzenena chavismoak zuen gehiengo sozialaren galera izan da, hamarkada batez gozatutako hegemonia kolokan jarritz. Urte askotan ikusitako «% 60 vs % 40» iruditik berdinketa tekniko batera pasatu da Venezuelako errealtate politikoa, azken hauteskondeek argi eta garbi erakutsi duten bezala. 2010eko irailean parlamenturako hauteskundeak adibiderik onena izan dira berdinketa hori baieztatzeko (Lander, 2010: 10)<sup>9</sup>.

Chavismoak pairatzen duen krisiari aurre egiteko hainbat neurri martxan jartzen hasi dira. Arlo ekonomikoan, gobernua zenbait desjabetze burutu ditu, «enpresa espekulatuak batzuei aurre egiteko eta aldi berean esparru ezberdinetan jabego publikoa zabaltzeko». Horren ondorioz, langileriaren sektore batzuen presioa areagotu da autogestioaren alde eta «desjabetze-politika azkartzeko eta sakontzeko». Esparru sozialean, etxebizitza-programa handia bultzatzen hasi da. Azkenik, arlo politikoan, PSUVren barruan dauden «sektore kritiko eta ezkertiarrenak» mugitzen hasi dira «korrante propioa» eratzeko eta «barneko sektore eskuindarra»ri aurre egiteko (Acosta, 2011).

#### 4. Konklusioak

Azken hamarkadan Venezuelan gertatu den aldaketa-prozesuak lortu duen oihartzuna sekulakoa izan da, kontinentean baita mundu mailan ere. Esparru akademikoan, politikoan eta mediatikoan analisi asko eta askotarikoak egin dira herrialdean gertatzen ari den prozesu politikoari buruz. «Iraultza bolivartarrak» eta Chavez presidentearen figurak eskuratu duten arreta intelektuala ez da nolana-hikoa izan ikerketa eta ikasketa latinoamerikarretan, egindako lan askok erakusten duten bezalaxe. Horrexegatik, Venezuelak bereganatu duen zentralitatea ukazina da.

Bereganatutako zentralitatea lotuta dago jazo diren aldaketa ezberdinekin, zenbait adituk baieztatzen duten bezala. Arlo ezberdinetan gobernua bultzaturiko aldaketek ahalbidetu zuten proiektu politiko berriaren hegemonia eta gizarte

---

9. Chavismoak 98 diputatu lortu zituen eta oposizioak 65, eserlekuak banatzeko sistemari esker, baina boto guztiak kontuan hartuz gero, % 1eko alde besterik ez dago bien artean: 5.423.324 boto (chavismoak) eta 5.320.364 boto (oposizioak). (Lander, 2010: 10).

gehiengoaren sostengua. Arlo sozialean hauexek nabarmendu ziren: hezkuntza-aren zabalkundea (alfabetizazioa, unibertsitate berriak, aurrekontuaren igoera), osasungintza-aren unibertsalizazioa eta dohaintasuna, pobrezia eta ezberdintasuna-aren murrizketa nabaria, eta abar. Ekonomian, Estatuaren papera berreskuratzea eta eredu neoliberala gainditzeko saiakera azpimarratzekoak dira. Esparru politikoan, herritarren parte-hartzea bultzatzeko neurriak gailentzen dira («Kontseilu komunalak», Planifikazio-batzordeak eta abar). Nazioarteko arloan, OPEP berrindartzea, multilateralismoa defendatzea eta integrazio latinoamerikarra (ALBA, Petrocaribe, Unasur...) bultzatzea dira gehien aipatzen diren aldaketak.

Hala ere, «Iraultza bolivartarra» 10 urte bete ostean egoera politiko konplexuan dago, nolabaiteko *geldialdia* nabaritzen baita. Zenbait aldagaik islatzen dituzte proiektu politikoaren ahulezia eta kontraesanak, besteak beste, gizarte-programa eta zerbitzu publiko batzuen funtzionamendu eskasak, burgesia berriaren bote-reak, kultura klientelistaren pisuak eta Estatuaren eraginkortasun ez nabariak. Horrek guztiak gizartearen sektore baten sostenguaren galera ekarri du, azken hauteskundeek emaitzek islatu dutenez, eta chavismoak duen hegemonia kolokan jarri du. Ondorioz, datorren urteko hauteskundeak (2012ko urrikoak) erabakigari-riak izango dira, zalantzarik gabe.

## Bibliografia

- Acosta, V. (2011): *Conferencia magistral*, Radio Nacional de Venezuela, 2011-02-07, Caracas.
- Álvarez, V. (2011): *Venezuela: hacia dónde va el modelo productivo*, Centro Internacional Miranda, Caracas.
- Blanco, C. (2002). *Revolución y desilusión. La Venezuela de Hugo Chávez*. Madrid. Catarata.
- Bjorklund, E. (2002): "Una autopsia. Venezuela, el golpe militar fracasado (9 de mayo de 2002)", in Serrano *et al.*, *Periodismo y crimen. El caso Venezuela 11-04-02*, Hiru, Hondarribia.
- Bonilla-Molina, L. eta El Troudi, H. (2004): *Historia de la Revolución Bolivariana. Pequeña crónica 1948-2004*, Edición de los autores, Caracas.
- Casanova, R. (2007): Elkarrizketa pertsonala, 2007-03-16, Caracas.
- Chacón, J. (2011): *Seguridad en Venezuela. Entre la política de Estado y la manipulación política*, Informe 21, 2011-10-24, Caracas.
- Contreras, M. (2007): Elkarrizketa pertsonala, 2007-02-17, Caracas.
- Dieterich, H. (2007): *En Venezuela se han creado condiciones para construir el Socialismo del Siglo XXI*, Rebelión.
- Ellner, S. (2003): "Introducción: en la búsqueda de explicaciones", in Ellner *et al.*, *La política venezolana en la época de Chávez. Clases, polarización y conflicto*, Nueva Sociedad, Caracas.
- , (2004): "Venezuela imprevisible. Populismo radical y globalización", *Nueva Sociedad*, **183**, Caracas.
- Ewell, J. (2002): "Venezuela, 1930-1990", in L. Bethell (arg.), *Historia de América Latina, Vol. 16. Los países andinos desde 1930*, Crítica, Bartzelona.
- Harnecker, M. (2003): *Venezuela. Militares junto al pueblo*, El Viejo Topo, Madril.
- , (2004): *Venezuela. Una revolución sui generis*, Rebelión.



- , (2007): “Venezuela: golpes y contragolpes”, *Comunicação & Política*, **25- 2**, Sao Paulo.
- Lander, E. (2004): “Izquierda y populismo: alternativas al neoliberalismo en Venezuela”, *Nueva izquierda latinoamericana. Pasado y trayectoria futura* kongresuan aurkeztutako ponentzia, Universidad de Wisconsin, Madison.
- , (2010): *¿Quién ganó las elecciones parlamentarias en Venezuela?* CETRI, Caracas.
- Lebowitz, M. (2006): “A reinventar el socialismo”, in M. Lebowitz (arg.), *Socialismo para el Siglo XXI. Constrúyanlo ahora*, Monthly Review Press.
- López Maya, M (2005): “La versión oficial. Exposición con motivo del reconocimiento en la Asamblea Nacional de la ratificación del presidente (27 de agosto de 2004)”, *Encuentro de la Cultura*, **34-35**.
- Maza Zavala, D. (1979): “Historia de medio siglo en Venezuela: 1926-1975”, in P. González Casanova (arg.), *América Latina: Historia de medio siglo. Volumen 1. América del Sur*, Siglo XXI, Mexiko.
- Moron, G. (1994): *Breve historia contemporánea de Venezuela*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.
- Muller, A. (2001): *Época de revolución en Venezuela*, Solar Ediciones, Caracas.
- Parker, D. (2007): Elkarrizketa pertsonala, 2007-02-22, Caracas.
- Roberts, K. (2003): “Polarización social y resurgimiento del populismo en Venezuela”, in Ellner *et al.*, *La política venezolana en la época de Chávez. Clases, polarización y conflicto*, Nueva Sociedad, Caracas.
- Sonntag, H. (1992): “La democracia en Venezuela: una visión prospectiva”, in P. González Casanova eta M. Roitman (arg.), *La democracia en América Latina: Actualidad y perspectivas*, Editorial Complutense, Madril.
- Uharte, L. (2008): “Venezuela: del ajuste neoliberal a la promesa de Socialismo del Siglo XXI”, *Historia Actual Online*, **16**, Cadiz.
- , (2008): *Política social en Venezuela: ¿un nuevo paradigma?* Editorial Complutense; Madril.
- Viciano, R. eta Martínez, R. (2001): *Cambio político y proceso constituyente en Venezuela (1998-2000)*, Tirant Lo Blanch, Valentzia.
- Vivas, L. (2000): *La última revolución del siglo*, Editorial Planeta Venezolana, Caracas.
- Yañez, P. (2007): Elkarrizketa pertsonala, 2007-02-03, Caracas.

